

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

2 MAILA

Azterketa idatzia

A EREDUA

Deiturak: _____

Izena: _____ NA: _____

Azterketa idatziak bi zati izango ditu

- Entzumena
- Irakurmena eta idazmena

Azterketa idatzia etenik gabe egingo da. Entzumenarekin hasi eta beste bi ariketak, irakurmena eta idazmena, ondoren.

Entzumena amaitu ondoren **ordubete eta 45 minutu** izango dituzu irakurmenaren eta idazmenaren zatiak egiteko.

	ARIKETA	Puntuazioa gutxienez	Puntuazioa gehienez	Proposaturiko denbora
Azterketa idatzia	Irakurmena	---	20 puntu	45 min. inguru
	Idazmena	15	30 puntu	60 min. inguru
	Irakurmena eta idazmena	---	50 puntu	1h 45min.
	Entzumena	---	20 puntu	

Azterketa deialdia: **2006ko maiatza**

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

ENTZUMENA

1. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratiko saio batean **janarien zaporeaz** hitz egingo du Ane Galarraga Elhuyarreko kideak.

Entzun ikerketaren informazioa eta aukeratu erantzun zuzena.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Adibidea:

Egia **Gezurra**

0. *Jakien oinarrizko zaporeak lau izan dira orain arte: gozoa, gazia, mingotsa eta garratza.*

X	
---	--

1. Mihiaren toki zehatzetan dauzkagun errezeptoreak bereizten dituzte zaporeak.

--	--

2. Mingotsa bereizteko errezeptoreak mihiaren atzealdean daude, ia eztarrian.

--	--

3. *Umami* zaporea orain arte munduan ezezaguna zen.

--	--

4. Soja-saltsak eta proteinek *umami* zaporea dute.

--	--

5. Janari prestatuen osagaietan glukamatoek E610-620 bitarteko zenbakia izaten dute.

--	--

6. Glutamatoak janari prestatuetan zaporeak pizteko erabiltzen dira.

--	--

7. Gantza edo koipearen zaporeak soilik ukimenarekin eta ikusmenarekin duela lotura frogatu dute Frantzian.

--	--

8. Saguek mihian gantza edo koipea antzemateko errezeptoreak dituztela frogatu da.

--	--

9. Errezeptorerik gabeko sagu transgenikoek jaki koipetsuak aukeratu zituzten.

--	--

10. Sagu arruntek askoz nahiago izan zituzten janari koipetsuak.

--	--

HADE

ENTZUMENA

2. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratian **Arantxa Urretabizkaia**ren iritzia entzungo duzu. Albiste bat izango du hizpide: banatu den bikote batena.

Entzun idazlearen iritzia eta aukeratu erantzun zuzena.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

Aukeratu erantzun zuzena:

1. Bikotea banatu denean, ...
 - a. semeak ez du gurasoekin bizitzea aukeratu, lagunekin baizik.
 - b. semeari gurasoek esan diote norekin bizi beharko duen.
 - c. semeak, berriro ere, berearekin ateratzea lortu du.
2. Banatutako bikotearen semeak ...
 - a. ez du inoiz lanik egin, eta zaila iruditzen zaio lana lortzea.
 - b. ikasketak utzi behar izan ditu, gaixotu egin baita.
 - c. zalantza handiak ditu, nonbait, bizitzan zer egin erabakitzeko.
3. Bikotearen banaketa bideratu duen epaileak erabaki du ...
 - a. semeak aitari eskatutakoa bidezkoa dela.
 - b. aitak semeari lana lortzen lagundu beharko diola.
 - c. semeak aitari lanean lagundu beharko diola.
4. Arantxa Urretabizkaia iritzia ematerakoan dio ...
 - a. seme-alaben mende bizi direla gaur egun gurasoak.
 - b. seme-alabak gurasoen mende daudela oraindik.
 - c. seme-alabak eta gurasoak elkarren mendean bizi direla.
5. Arantxa Urretabizkaia jarrera gertaeraren aurrean hau da: ...
 - a. ados dago epaileak hartu duen erabakiarekin eta gaurko seme-alaben egoerarekin.
 - b. ez du ongi ikusten egoera, eta zeharka egiten du kritika, entzuleak erabaki dezan.
 - c. gaurko seme-alaben eta gurasoen egoera ulertzen du, baina epaileena ez.

Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:

1	2	3	4	5
---	---	---	---	---

HADE

IRAKURMENA ETA IDAZMENA


IRAKURMENA

1. TESTUA

Ondoren, egunkariko hainbat albiste labur irakurriko dituzu.

1. egitekoa

Albiste bakoitzari bere **izenburua** aurkitu behar diozu. Lotu letrak eta zenbakiak eta idatzi erantzuna laukietan, adibidean bezala. (2 izenburu soberan geratuko zaizkizu).

A=0	B
<p>Etorikinei egoitza-baimen faltsuak lortzen zizkien talde bateko hamar kide atxilotu ditu Espainiako Polizia Nazionalak. Bilbon, Bartzelonan, Madrilan eta Valentzian jarduten zuen taldeak. Hala ere, atxilotuta gehienak Bilbon egin zituzten. Poliziak jakinarazi zuenez, Kolonbiakoak dira atxilotutakoak, gehienak Cali hirikoak. Era berean, baimen gehienak etorkin kolonbiarrei saltzen zizkietela jakinarazi zuen.</p>	<p>Hego Koreako Gobernuak auditoreek 5.400 euro inguru bidegabe hartzea leporatu zioten atzo Hwang Woo-suk zientzialariari. Giza enbrioia klonatuetatik zelula amak lortu zituela esanez, iruzur egiten saiatu zen iaz Hwang. Esperimentuak egiteko diru laguntza publiko zein pribatuak jaso zituen zientzialariak. Auditoreek atzo esan zuten, susmo handiak dituzte Hwangek laguntza horietako asko bere kontuan gorde zituela pentsatzeko. Ikerlarien arabera, Gobernuak buruengandik sostengua lortzeko erabili zuen Hwangek diruaren zati bat.</p>
C	D
<p>Gozokien salmentek %50eko igoera izan dute. Pertsona askok tabakoa utzi eta gizontzeko duten beldurrari irtenbidea eman nahian, azukre gabeko gozokiak eskaintzen ditu enpresa batek.</p>  <p>Horregatik, enpresa honek gozoki mota batzuk saltzen dituzten 1.000 makinatik gora ezarri ditu Espainiako estatu guztiko lantoki, aireportu, jatetxe zein tabernetan, konpainiak jakitera eman zuenez. Erretzaile ohien erdientzat gozokiak lagungarri izan dira. "Zigarroa ahora eramateko keinua ordezkatzeko eta beraz, erretzaileari, tabakoaren premiak eragiten dion estatusuna baretu diezaiotke", azpimarratu du enpresak.</p>	<p>Donostiako ostalari batek munduko lehendabiziko <i>gin-tonic</i> gozokiak egiteko formula asmatu du eta laster Espainiako estatuan zehar banatuko dira Internet bidez. Bezero batek tonika eta ginebra konbinatu ezagun bat eskatu zuen, gozoki bat atera eta konbinatuan busti zuen, jarraian ahoan sartu eta gozokia dastatu zuen. Egileak gozokiak egiten dituen enpresa batera jo zuen eta 100 kilo gozoki enkargatu zituen. Orain bigarren eskari bat egin du, 315 kilokoa. Gozoki hauek helduentzako dira, kolore zuria dute eta izotz lauki txiki baten itxura daukate. Gozokiak binaka banatzen dira, bilgarri gardenetan. Espainiako estatuan laster banatuko dira, Donostiako taberna honek duen web-gunearen bitartez.</p>
E	F
<p><i>Britainia Handiko bikote baten etxean telefonoak jotzen zuten bakoitzean, loroak emakumearen maitalearen izena errepikatzen zuten.</i> <i>Hasieran, animalia adarra jotzen zebilela pentsatu zuten gizonak, baina, apurka-apurka, txantxa hura susmo biburtu zen. Maitalearen izena telebistan entzuten zuten bakoitzean, soinu arraroak egiten zituen hegaztiak.</i></p>	<p><i>Expressen egunkariak jakitera eman duenez, armiarma batek 27 egun igaro ditu suediar baten belarrian. Armiarma beltza zen eta azazkal baten tamaina zeukan.</i> <i>Hilabetez bizileku berrian egon ostean, emakumea bere belarrian zerbait gertatzen ari zelakoan, botikara joan zen.</i> <i>Emakumeak azaldu duenez, hasieratik entzumena galdu zuen, baina zikinkeria izango</i></p>

HADE

Loroak, behin eta berriz "I love you Gary" errepikatzen zuen. Emakumeak bere lankide batekin izandako maitasun-barremana onartu behar izan zuen. Senarrak bere bikotearen maitalearen izena entzuteaz nazkatuta, zortzi urteko loroa saldu egin zuen.

zela pentsatuta, ez zion jaramon handiegirik egin. Halere, denborarekin, bere belarri barruan zarata arraroak entzun zituen eta botikara joatea erabaki zuen. Armiarma bizirik atera zen belarritik.

HADE

1. Egitekoa:

Lotu izenburuak eta albisteen letrak eta idatzi erantzunak beheko laukietan, adibidean bezala. (Bi izenburu soberan dituzu)

ALBISTEEN IZENBURUAK

Adibidea:

0. Agirien iruzurra

1. Bizitokian ezkutatua ia hilabetez
2. Tabernariaren negozio berria
3. Mexikon gertatutako istilu odoltsuak
4. Aurkikuntzak gezur, dirua tarteko
5. Etxeko salatari aparta
6. Antsietatearen aurkako ordezeko gozoa salgai
7. Tabernari gezurtia

Aukeratu testuen izenburuak eta idatzi beheko laukietan, adibidean egiten den bezala.

A-0	B-	C-	D-	E-	F-
------------	-----------	-----------	-----------	-----------	-----------

HADE

IRAKURMENA

2. TESTUA

Arantxa Iturbe idazlearen ipuin bat irakurriko duzu.

1. egitekoa

Irakurri testua eta protagonistaren **sentipenak** (1) eta ipuinaren **amaiera** (2) ongien **laburtzen** dituzten paragrafoak aukeratu.

2. egitekoa

Zenbait hitzen **esanahia** aurkitu behar duzu testuan.

PAÑUELO¹ GORRIA LEPOAN

Buzoian fakturak eta iragarki-orriak besterik aurkitzen ez zituelako, harritu zuen izugarri sobre arroxa hark. **Aldo banatara** ondo begiratu ondoren (behin baino gehiagotan gertatu baitzitzaion sorpresaz bat hartu eta bizilagunen batentzat zela konturatzea), izenik ez zeramala ikusi zuen. Ez izenik, ezta helbiderik ere, eta gehixeago harritu zen. Baina **aho bete hortz**, igogailura iritsi baino lehen —**ikusmin** gehitxo zeukan etxera heldu arte itxaroteko—, sobrea zabaldu eta barrukoa irakurri zuenean, geratu zen.

Bi hitz bakarrik. Letra txukunez, ondo pentsatuta, paperaren erdi-erdian idatziak: "Maite zaitut". Ez firmarik, ez seilurik, ez ezer. Bi hitz haiek, bata bestearen ondoan. Dozena erdi bat aldiz irakurri zituen, eta pentsatu ere bai, zeinen gutxitan entzundakoa zen. Pentsamendu haren hariari jarraituz, norbaitek okerreko buzoian sartutako gutuna izango zela sinetsi, eta oheratu zen.

Akordatu, akordatu zen hartaz hurrengo egunetan, baina hura jaso behar zuenak zeukan zortea eta antzekoak izan zituen burutazioen ardatz nagusi. Bigarrena, buzoi berean —berean— topatu zuen arte.

Kartazal arroxa hura ere. Izenik eta helbiderik gabea eta barrua luzexeagoa: "Egunetik egunera gehiago maite zaitut".

Bigarrena ez zen aski izan. Gizona omen bi aldiz harri berarekin estropezu egiteko gauza den izaki bakarra, dio erdal esaerak, eta izenik gabeko maitalea berriro tronpatuko zelakoan etxeratu zen. Ez zuen, ordea, loak hartu arte ahaztu. "Zergatik ez?" galdetzen zuen bere baitan. "Zergatik ez du norbaitek nitaz maitemindu behar?". Irribarrea **ernatu** zitzaion, zimur hasi berriak areagotuz, baina adore onez jaiki zen argi-txintarekin batera.

¹ Idazleak *zapi* hitzaren ordez erabiltzen duen hitza. Era berean, baditu testuan zehar ahozko erabileratik hartutako beste zenbait hitz.

HADE

Bi egun beranduago jaso zuen hirugarrena: *"Ez ukatu. Badakizu nor naizen. Irribarre batekin nahikoa nuke"*. Eta egia bazen? Benetan, norbait, berarekin txundituta baldin bazegoen? Sikiera aztarna txiki bat eman izan balio... Inguruan ezagutzen zituen gizonezko guztiak pasa zituen eta ezin zuen inor imajinatu berari gutun anonimoak bidaltzen. Joakin harakinak aprezioa bazion, oso ondo tratatzen zuen, xerrak erostera joaten zen bakoitzean, baina ez zuen inola ere sobre arroxak erabiltzen ikusten. Don Ramon, zer esanik ez! Hogeita bi urte zeramatzan bere idazkari lanetan eta hainbeste urtetan hitz gozo bakar bat ere bota gabe, orain lelokeria haietan hastea besterik ez zitzaion falta! Ez ahal zen bera izango! Oso seinale txarra zatekeen hura! Burutik pasatzea ere...

Eta nork esan zion, gainera, gizona izan behar zuenik? Eta emakumea bazen? Normalagoa izango zen gainera. Noski, horrexegatik ez zen ausartzen aurrez aurre hitz egitera! Pentsatze hutsak hotzikara sortu zion, eta gaia alde batera utzi eta lo egitea erabaki zuen.

Astebete baino lehen iritsi zen hurrengo. Eskakizun xeble batekin hau: *"Ezagutu nahi banauzu, atera zaitez pañuelo gorria lepoan duzula"*. Pañuelo gorria! Eta nondik atera behar zuen pañuelo gorri bat? Lan ederra jarri zion oraingoan! Ausartegia iruditu zitzaion burutazioa, baina okasioak merezi zuela eta Rosa Marirengana jo zuen, bizilagun berriarengana:

—Rosa Mari, barkatu atrebentzia... baina ez duzu kasualitatez niretzako moduko pañuelo gorriarik izango? Konpromiso bat daukat bihar eta...

Rosa Marik zoratzen utzi zion berea. Lasai hartzeko eta zer demontre!, oparitu egiten ziola gainera. Nazkatu samarra zegoela pañuelo hartaz eta... beste ezer behar bazuen hinki-hankarik gabe eskatzeko, horretarako zirela lagunak eta!

Gau hartan apenas lorik egin zuen. Hamaika ametsetan murgilduta, pasa zuen gaua, amets gehienak esna eginez. Ez zuen bere burua oso egokia ikusten pañuelo gorria lepoan jarrita ibiltzeko, baina tira, hari esker anonimo egile misteriotsua ezagutu behar bazuen, huraxe jarrita aterako zen.

Eta halaxe egin zuen. Ahalik eta konbinaziorik egokiena aurkitu zion pañueloari, eta airosa-airosa irten zen kalera. Ez zen hain airosa itzuli. Egun osoan inguru guztiak miatu zituen, sekula baino gehiago paseatu zuen lanetik etxerakoan, baina inor ez zitzaion hurbildu, eta erabat goibel bukatu zuen, itxaropenez hasitako eguna.

Irrikaz ireki zuen buzoia biharamunean, gutun arroxak kanpotik sumatu zuenean: *"Zergatik utzi diozu zure pañuelo gorri zoragarria amona horri? Honek betirako ezetz esan nahi al du?"* zioen kartak.

(*Lehenago zen berandu*, Alberdania, 1995)

© Ezer baino lehen: Elkar

HABE

1. Egitekoa:

1. Hiru adierazpen hauetatik (A, B, C) zein da **protagonistaren sentipenak** ongien laburtzen dituenena. Idatzi letra beheko laukian.

- A Ipuinaren hasieran, protagonista harrিতuta badago ere, amaierarako sinetsi egiten du maitalea izan dezakeela. Hala ere, ez du lortu espero zuena.
- B Ipuinaren hasieratik uste du protagonistak gutunak beretzat idatziak direla, eta amaierarako frogatua geratzen da: maitale bat izatea lortzen du.
- C Ipuinaren hasieran, bakarti eta goibel dago protagonista, eta hala segitzen du amaiera arte. Ez du inoiz pentsatzen gutunak beretzat izan daitezkeenik.

Protagonistaren **sentipenak** ongien laburtzen dituen adierazpena da.

2. Ondorengo A, B, C adierazpenetatik zein da ipuinaren **amaierari** dagokiona? Idatzi letra beheko laukian.

- A Rosa Mari da maitale misteriotsuaren gutunak jaso behar zituen pertsona.
- B Protagonistak bere maitale misteriotsuarekin topo egiten du, baina protagonista ez da harengana hurbiltzera ausartzen.
- C Protagonistak, Rosa Mari eta zapi gorriari esker, maitale bat izatea lortzen du azkenean.

Ipuinaren **amaiera** da.

HADE

2. Egitekoa:

Zer esan nahi dute testuan ondoren beltzez idatzita dituzun adierazpenek. Aukeratu ezazu erantzun egokia eta idatzi beheko laukietan, adibidean egiten den bezala.

0. **Ikusmin** gehitxo zeukan... (5. lerroan)

- a. Irrikaz zegoela gutuna irekitzeko.
- b. Minez zegoela gutuna irekitzeko.
- c. Penaz zegoela gutuna irekitzeko.

1. **Alde banatara** ondo begiratu... (2. lerroan)

- a. Buzoiaren bi aldeetara begiratzen duela.
- b. Sobrearen bi aldeetan begiratzen duela.
- c. Inguruan bi aldeetara begiratzen duela.

2. Zergatik geratu zen **aho bete hortz**... (4. lerroan)

- a. Bere buzoian gutun bat jaso zuelako.
- b. Gutunak zioena irakurri zuelako.
- c. Gutunak izenik ez zekarrelako.

3. Irribarrea **ernatu** zitzaion zimur hasi berriak areagotuz... (20. lerroan)

- a. Irribarrea sortu zitzaiola eta zimurrak nabarmendu zitzaizkiola.
- b. Irribarrea ezabatu zitzaiola, zimur gero eta gehiago zuelako.
- c. Irribarrea lausotu zitzaiola, triste jarri zelako.

0-a	1	2	3
-----	---	---	---

IRAKURMENA

3. TESTUA

Anjel Lertxundik Berrian idatzitako iritzi-artikulu bat irakurriko duzu.

1. egitekoa

Irakurri testua eta alboan dituzun aukeretatik (A, B, C) idazlearen **iritzia** ongien adierazten duena aukeratu. Idatzi letra beheko laukian.

Ez daude ketan

Astero bisitan joaten naizen zahar-etxean taberna eder bat dute. Orain mahai batean, gero bestean, bertako zaharrek bisitak egiten dizkiote elkarri, mahaietako bakoitza etxe bat balitz bezala eta mahaien arteko bidexka, kale nagusia. Mundualdiaren azken etapan, munduan egoteko modu bat dute taberna; mundutik aparte egon arren, ez daudela hain aparte sinesteko modu bat.

Batzuek erre egiten zutenez gero, ketan egoten zen giroa. Orain aparteko gelatxo bat jarri diete erretzaileei. Zortzi bat dira, eta hantxe ikusten ditut, aulki soiletan eserita eta mahairik gabe, zigarroei ateratzen dizkieten ke-bilurrei begira. Isilik, mundutik bigarren aldiz apartatu dituztelako seguru asko. Tabernako giroa ere asko isildu da erretzailerik gabe.

Ketan egotea gustura egotea da euskaraz. Erretzaileak ketan daude, baina ez atseginez. Kerik gabe daude tabernakoak, baina ez zoriontsuago.

Anjel Lertxundi
Berria 2006/01/15



Zein da idazlearen **iritzia**?

- A. Zahar-etxeko tabernan, erretzaileak bereizi dituztenez geroztik, gusturago daude tabernan geratu direnak, baina ez aparteko gelatxoan jarri dituzten erretzaileak.
- B. Zahar-etxeko tabernan, erretzaileak bereizi dituztenez geroztik, tabernan geratu direnak ez daude lehen bezain alai, nahiz eta orain osasuntsuago egon.
- C. Zahar-etxeko tabernan, erretzaileak bereizi dituztenez geroztik, ez da ezer aldatu, orain kea beste leku batera eraman dutela besterik ez.

Aukera ezazu erantzun zuzena eta idatzi **letra** laukian:

HADE

IDAZMENA

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxienerako hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 200 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana zuzentzean kontuan hartuko dira gaiaren garapena eta erabili duzun hizkuntzaren aberastasuna eta zuzentasuna.
- Idazteko boligrafoa erabili (zirriborroetarako arkatza erabil dezakezu).

Egitekoa:

Tabakoaren aurkako legearekin ados zaude?
Eman zure **iritzia** euskaltegiko aldizkari elektronikoan.



Hurrengo orrialdean Gorkaren mezuaren amaiera irakurriko duzu. Orain zure txanda da. Idatzi zure iritzia tabakoaren aurkako legeaz.

Gutxienez, **200 hitz** idatzi behar dituzu.

Zure mezua idazteko, nahi baduzu, ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Zure esperientzia eta zure ingurukoena
- Konparatu lehengo egoera eta oraingoa
- Anekdota edo pasadizoren bat
- Legearen alde onak eta txarrak
- Legea betetzen da, isunak jartzen dira...
- Lanean, tabernetan, ezkontzetan, frontoietan... ezin erre
- Tabakoak osasunari kalte
- Erretzeari uzteko metodoak
-

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Zirriborroetarako orria (orri hau ez da zuzenduko)



BIGARREN MAILAKO AZTERKETA

ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

BIGARREN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

Proba idatzia %50	Irakurmena	%20		20 puntu	45 min. inguru
	Idazmena	%30	gutxienez 15	30 puntu	60 min.
Ahozko proba %50	Entzumena	%20		20 puntu	25 min.
	Mintzamena	%30	gutxienez 15	30 puntu	10 min.
GUZTIRA		%100	gutxienez 60	100 puntu	

Agiria eskuratzeko gutxienez 60 puntu beharko dituzu eta 30 proba bakoitzean. Proba idatzian, gutxienez, 15 puntu lortu beharko dituzu idazmenean, eta, ahozko proban, 15 puntu mintzamenean. Agiria eskuratzeko ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) **gai** izatea. Emaitza bakarria emango da: **GAI/ EZ GAI**.

Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

IKUSPEGI OROKORRA. Eginkizuna betetzea, erraz ulertzea lehenbiziko irakurketan. Koherentea izatea, hari logiko bati jarraitzea.

BALIABIDE LINGUISTIKOAK (ABERASTASUNA). Lexikoaren aberastasuna. Erregistroa. Egitura aberatsak. Antolatzaileak, lokailuak, kohesio-formak. Testu-motari dagokion egitura.

ZUZENTASUNA. Mailari dagozkion egitura morfosintaktikoen erabilera. Lexikoaren erabilera. Puntuazioa. Ortografia.

Eskatu zaizun egitekoa gainditzeko ezinbestean gutxienerako bat lortu behar duzu ebaluazio irizpide bakoitzean.

2 MAILA

AZTERKETA IDATZIA

2006ko MAIATZA

Eredua

A

Aztertzaileentzako orriak

ZUZENKETARAKO OHARRAK

Azterketa bakoitzari **idatziaren ebaluazio-fitxa** edo emaitzen fitxa bat dagokio. Azterketaren puntuazioa neurrerako fitxa horretan idatzi behar da. Azterketariaren datuak fitxan idatzita izango ditu aztertzaileak eta azterketaren barruan jasoko du fitxa hori.

Azterketaren batean fitxa falta bada, badaezpadako fitxa hutsak ere izango ditu, ikaslearen datuak eskuz bete eta puntuazioak bertan jartzeko.

Hiru trebetasunen emaitzak idatziko dira neurrerako fitxan:

ENTZUMENA gehienez, 20 puntu

IRAKURMENA gehienez, 20 puntu

IDAZMENA gehienez, 30 puntu (gutxienez, 15 puntu gainditzeko)

Emaitzen orriak beteta eta azterketak zuzenduta itzuliko dira HABEra.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Azterketaren puntuazioa 2 MAILA

Entzumena

Bi entzungai dira.

Lehen entzungaian, erantzun zuzen bakoitzeko azterketariari **puntu 1** emango zaio. Denera,10.

Bigarren entzungaian **2 puntu** erantzun zuzen bakoitzeko. 5 galdera dira. Denera,10. Denera, **20 puntu**, gehienez.

Irakurmena

2. mailan hiru testu irakurriko dira.

Lehenengo testuak egiteko 1 du.

1. Egitekoa. Izenburuak aurkitu. **5** izenburu dira, eta erantzun zuzen bakoitzeko puntu 1 lortuko du.

Denera, **5 puntu**, gehienez.

Bigarren testuak 2 egiteko ditu.

1.Egitekoa. Bi galdera ditu (1 eta 2). Erantzun zuzen bakoitzeko **2 puntu** lortuko ditu.

2.Egitekoa. Testuan esanahia aurkitu. Hiru galdera dira eta erantzun zuzen bakoitzeko **2 puntu** lortuko ditu.

Denera, **10 puntu**, gehienez.

Hirugarren testuak egiteko 1 du.

1 Egitekoa. Idazlearen iritzia zein den esan. Galdera bakarra da eta zuzen erantzunez gero, **5 puntu** lortuko ditu.

Denera, **5 puntu**, gehienez.

Hiru testuen artean **20 puntu** lor daitezke.

Idazmena zuzentzeko oharrak

Akatsak ikusten direnean, **ez jarri markarik testuan**. Azterketaren ertza erabili laburdurak edo zeinuak idazteko. Arkatza erabili.

Ez azpimarratu eta ez biribildu akatsa. Alboko ertzean jarri zeinua.

Zati luze eta traketsak ertzean marra bertikala jarrita seinalatu.

Ez jarri zuzenketarik edo azalpenik idazlanean, are gutxiago iritzi edo iruzkinik.

Ez ezer azpimarratu.

Idazlanaren ertzetan laburdura hauek erabil litezke akats aipagarrientzat edo aztertzaileak asmatutakoak:

Vitoria-Gasteiz kalea 3
20018 DONOSTIA

Tel.: 943 022 600 Fax:

943 022 601

www.habe.org



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

? ulergaitza, √ zerbait falta da, **dek** deklinabidea, **ad** aditza, **lex** lexikoa, **punt** puntuazioa, **sint** sintaxia, **erl** erlatibozkoa, **zg** zehar galdera, **nom** nominalizazioa, **konp** konparaziozkoa, **konpl** konpletiboa, **bal** baldintzazkoa, **ord** hitzen ordena, **kom** komunztadura, **lok** lokailua.

Kontuan izan ebaluazio irizpideak eta, irizpide bakoitza baloratu ondoren, hau da, ikuspegi orokorra, baliabide linguistikoak eta testuaren zuzentasuna, jarri azken emaitza. Gehienez, **30** puntu. Gainditzeko, gutxienez, **15**.

Ebaluazio orrian idatzi balorazioa eta puntuazioa, ez azterketan.
Ongi arrazoitu jarritako puntuazioa, batez ere *ez gai* baldin bada.

Birzuzenketak

Aztertzaileak zalantza handiak baditu azterketa bati puntuazioa ematerakoan, hala adieraziko du eta birzuzenketa eskatuko du (ebaluazio-fitxan idatzita). Bere emaitza jarriko du, baina zalantzak dituela esango dio HABEri emaitzak eramaten dituenean. Azterketa hori beste aztertzaile bati emango zaio berriz zuzentzeko.

Gainerakoan, HABEk erabakiko du birzuzenketak nola egin. Birzuzenketak aurten ekainaren lehen astean egingo dira eta aztertzaileek hartuko dute parte.

Entzumena eta irakurmena

Bi zati horien zuzenketak ongi idatzi ebaluazio orrian. Puntuak ongi batu eta **batuketa errepasatu**. Puntuazioa emateko edo erantzunen bat onartzeko zalantzarik baldin baduzu, deitu HABEra, ebaluazio atalera eta galdetu.

ENTZUMENA

1. Testua 10 x 1 = 10 puntu

A EREDUA	0- E	1- E	2- E	3- G	4- E
---------------------------	-------------	-------------	-------------	-------------	-------------

5- G	6- E	7- G	8- E	9- G	10- E
-------------	-------------	-------------	-------------	-------------	--------------

2. Testua 5 x 2 = 10 puntu

A EREDUA	1 c	2 c	3 a	4 a	5 b
---------------------------	---------------	---------------	---------------	---------------	---------------

Denera, 20 puntu, gehienez.

IRAKURMENA

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

1. Testua 5 x 1 = 5 puntu

A EREDUA	A-0	B-4	C-6	D-2	E-5	F-1
--------------------	------------	------------	------------	------------	------------	------------

2. Testua

1. Egitekoa

1. protagonistaren **sentipenak** aukeratu.

2 puntu

A EREDUA	A
--------------------	----------

2. **Amaiera** zuzena aukeratu.

2 puntu

A EREDUA	A
--------------------	----------

2. Egitekoa

Esanahia testuan aurkitu

3 x 2 = 6 puntu

A EREDUA	0- a	1 b	2 b	3 a
--------------------	---------	--------	--------	--------

Denera, 10 puntu, gehienez.

3. Testua

1. Egitekoa

Idazlearen **iritzia** zein den esan.

5 puntu

A EREDUA	B
--------------------	----------

Irakurmena, denera **20 puntu**, gehienez.